

Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua: Gizarte aurrerapen iraunkorreko justizia ardatza

(17th Congress of Basque Studies Society:
Justice as the cornerstone of ongoing social progress)

SAN MIGUEL, Nekane

Bizkaiko Entzutegi Probintziala.
Barroeta Aldamar Kalea, 10. 48001 Bilbo
mn.san-miguel@poderjudicial.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 19; 63-66]

Eusko Ikaskuntzak 2009ren udazkenean Gasteizen ospaturiko Kongresuak, berrikuntza zuen ardatz. Gizarte arlo askotan eman beharrekoa, eta guztion aurrerapen iraunkorra ipartzat hartuz, hainbat proposamen azaldu ziren, tartean justizia eta zuzenbide munduari lotuak: Oinarriko Eskubideen egikaritzearen inguruan; Bidezko Prozesua, eta, besteak beste, hizkuntza eskubideak; hiritarra gatazka juridikotan objektu beharrean subjeto izatearen garrantziaz; ingurumen eta sustengarritasunaren lotura prozesu juridiko eta epaitegietatik at...

Giltza-Hitzak: Berrikuntza. Oinarriko eskubideak. Demokrazia. Sustengarritasuna. Ingurumena. Bidezko prozesua. Prozesu judiziala. Hizkuntza eskubideak.

El Congreso celebrado por Eusko Ikaskuntza en otoño de 2009 en Vitoria-Gasteiz tuvo como eje central la innovación, necesaria en multitud de ámbitos sociales. Tomando como meta el progreso continuo para todos, surgieron diversas propuestas, entre ellas las relativas al campo de la justicia y el derecho: sobre el ejercicio de los Derechos Fundamentales; sobre el Proceso Justo y, entre otros, los derechos lingüísticos; sobre la importancia de que el ciudadano sea sujeto y no objeto en los conflictos jurídicos; sobre la relación del medioambiente y la sostenibilidad en los procesos jurídicos y fuera de los juzgados...

Palabras Clave: Innovación. Derechos fundamentales. Democracia. Sostenibilidad. Medioambiente. Proceso justo. Proceso judicial. Derechos lingüísticos.

Ze Congrès célébré par Eusko Ikaskuntza en automne 2009 à Vitoria-Gasteiz s'est concentré sur l'innovation, nécessaire dans de nombreux domaines de la société. Avec comme objectif le progrès pour tous, plusieurs propositions ont été présentées, parmi lesquelles celles relatives au domaine de la justice et du droit : l'exercice des droits fondamentaux, le procès juste et, entre autres, les droits linguistiques ; l'importance que le citoyen soit sujet et non objet dans les conflits juridiques ; la relation entre environnement et développement durable dans les procédures judiciaires et extrajudiciaires ...

Mots-Clés : Innovation. Droits fondamentaux. Démocratie. Durabilité. Environnement. Procès juste. Procédure judiciaire. Droits linguistiques.



Eusko Ikaskuntzak 2009ren udazkenean Gasteizen ospaturiko Kongresuak, berrikuntza zuen ardatz. Gizarte arlo askotan eman beharrekoa, eta guztion aurrerapen iraunkorra ipartzat hartuz, hainbat proposamen azaldu ziren, tartean, justizia eta zuzenbide munduari lotuak.

Ezin uka gaur egun justizia egiteko edo emateko erak inor gutxi asebetetzen duela, eta zientzia eta bizitzaren beste hainbat eremuetan uneoro ikusten ditugun bilakaera-garapen desiragarriarekin alderatuta, guk lantzen dugun “mundu” honetan (zuzenbide eta justizian, alegia) hamaika kontu irauli beharrean gaude aurrerapauso txikiena emateko ere.

Ezin ahaztu, legeak sortu eta egiterakoan, gatazka egoera bazter ezina dela. Alderantziz, arazorik ez balego, istilurik aurreikusiko ez balitz, nekez arautuko litzateke hainbat kontu: Problema non, noiz eta nola sor daitezkeen aurreikusi, eta halakorik egikaritzean, soluziobidea emana edo, sikiera, bideratuta behar duela bere baitan, legearen edukinean. Dena den, zuzenbide munduan ere, ez da berdin (zer esanik ez, ez dela gauza bera) soluzioa nondik bideratzen den, eta arazo, problema edo istiluan inplikaturik direnek zer nolako parte hartzea duten bide horretan.

Baieztapen ximple eta, ustez, ez oso akademikoa aipatuz hasi dut kronika hau, baina edozein Konstituzio edo Nazioarteko Hitzarmenek jasotzen dituen oinarriak irakurtzerakoan, aldarrikapen jakin eta errepikatuak aurkituko ditugun arren, haien ondorioz idazten diren legeetan, oinarritzko giza-eskubide horiek noraino betetzen diren zalantza-laino batek harrapatuta gabiltzala aipatuz hasi zitzaigun mintzatzen Jiménez Villarejo Irakasle ospetsua.

Ez noa ni hemen Maisu ezagunaren doaiak aipatzera (jakinak direlako), baina bere diskurtso argi bezain mamitsua entzunda, “berrikuntza”ren ideiaren harira nator, behin eta berriz errepikatutako aldarrikapen eta eskaerak ezin zaharkitutzat eman; hamaika aldiz eskatua, aipatua, teorian garatua, bueltak eman zaizkion arren (“batzuk” gogaiteragin arte) “berria” izaten jarraitzen baitu benetan hainbesteko garrantzia duen “eskubide xume” hori bermatu arte eta... Hobe Jiménez Villarejok esandakoak gaindituta bagenitu, baina hamaika mila aldiz esan eta idatzita egon arren, ez dira egikaritu. Oinarritzko Eskubideez aritu zen bai, baina bere ustetan, nekez berma daiteke duintasuna, askatasuna, intimidadea, giza-garapena, berdintasuna (diskriminazio eza) eta abar luze hori orain arte beste maila baten sailkaturiko beste eskubide hauek ere bermatu gabe: osasunerakoa, lan duina izatekoarena, elikagai sanoak, etxebizitza... materialagoztat jo edo emandakoak.

Aipatu dut ez dela diskurtso berria, eta joan den mendeko urte luzeetan dikotomia ezagunaren ardatz izan direla: Zenbat aldiz entzun dugu, “demokrazia”, burgesa izanik, ezer ez zutenei gosez hiltzeko eskubidea bermatu besterik ez zuela egiten “eskubide espiritual” hainbat arautzeak, edo... Zertarako eman langile bati “sindikatzeko” eskubidea lanik ez badu? Edo irabazten duenarekin, bera eta bere soldataren beharrez direnentzat jateko adina ez badu, zertarako intimidarearen promesa? Eta abar luzea. Irakaslearen aburuz, eskubide kategoria edo maila guztiak antzerako babes-mailan arautu beharra dago, ezin baita bestela pertsona osotasunean garatu, eta zalantza zehatzak aurkeztu zizkigun bere azalpenaren muinari lotuta: Egun, indarrean dagoen “Merkatuko Ekonomiak” eta honek garatzen dituen baloreetan eskubide horiek guztiak bermatuko dituen egiturak jai duela. Ez zuen ahaztu, ez, oinarrikotzat eta lehentasunez ikusten diren eskubideen kontuan ere, atzerapausoak nabarmenak.

Zuzenbidea eta justizia epaitegietatik at gauzatzen direla ere jakina da, eta azkenaldi hauetan musika ederra duen diskurtsoa geroz eta maizago entzuten da: Bitartekaritza eta akordioarena. Gatazketan murgildurik daudenak bere onera ekartzeko garatu beharreko bestelako bideez ari naiz, hala aritu zirelako Jardunaldi horretan beste hainbat pertsona ere. Goian aipatu da epaia indarrez inposa daitekeen erabakia dela, eta horri gehitu behar zaio, epai horren hartzaile zuzen direnak subjektu ordeztu, gehienetan, epai-prozesuaren “objetu” direla. “Euren” arazo dena “ebatsi” egiten diegu, eta kasu hoberenean, ikusle huts bilakatzen dira. Nekez lor daiteke satisfakziorik. Horregatik, parte hartzearen bidetik abiatu, eta azaldu zitzaizkigun hainbat gogoeta eta esperientzia. Hala nola:

1. Iñaki BARCENAK zuzentzen duen taldea (UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Politika eta Administrazio Zientzien Sailekoa) honako izenburua duen lana azalduz hurbildu zen: *Ingurumen politiken komunikazioa: sostengarritasunaren adierazle sozio-politikoaren bila: ikerketa egitasmoaren aurkezpena*. Ingurumen politika horiek informazio defizita dutela gogora ekarri zigun, eta gabezia horrek, eztabaida publikoan duen eraginaz ohartarazi. Informazio ezak, eta batez ere, informazio okerrak, “gatazkek hauspotzeaz gain” (bere hitzak erabiliz), politika horien eraginez bizi behar duen oro, gauza eta ez pertsona bilakatzeraino ailega daitekeela erakutsi zigun, eta horri aurre egiteko, partehartze zabal bat ezinbestekoa dela eutsi. Guzti hori abiapuntutzat hartuta, buruturiko lanez eta asmoiez aritu zitzaizkigun taldekideak, bereziki, pil-pilean dagoen



Komunikatzaileek beraien gogoeta eta esperientziak azaldu zieten Kongresura hurbildu zirenei. Gasteiz, 2009.11.18 (Iturria: Eusko Ikaskuntzaren Argazki Bilduma).

“Abiadura Handiko proiektuak Euskal Herrian: Iparralde eta Hegoaldearen arteko erkaketa” beti ere berrikuntza eta parte hartzea ipar izanik.

2. Hain entzutetsu den jasangarritasunaren inguruko gatazkez aritu zitzaigun Jone MARTÍNEZ (UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Politika eta Administrazio Zientzien Saileko partaidea). Bere lanaren muina *“Sustentagarritasuna, sozio ingurumen gatazkek eta demokrazia”* izanik, horretan ere politika parte hartzailea aldarrikatzen zuen: batzar informatiboak eta foroak, besteak beste, gatazkaren logikaren aurrean, parte hartze forma berrizat hartu, eta bai jarraipen batzordeak, bai talde mistoak, zein herri kontsultak, tresna eraikitzaile, eta batik bat filosofia “parte hartzaile” direla garbi izanik, horren inguruan, eta lau urtez eginiko ikerketa eta azterketaren berri eman zigan.
3. Ildo berean murgildu zitzaigun Xabier EZEIZABARRENA (Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailekoa) eta *Ingurumen-inpaktua Ebaluatzeko prozedurak tresna juridiko erabilgarritzat* eman zizkigun bere azalpenean

Ezeizabarrenak, herritar guztiek eta proiektu edo lan “handi” horien eraginez, zuzenean kaltetuta suertatu direnek partaidetza aktiboa izan dezaten beharrez. Hau betetzeko, legeen ezinbesteko aldaketen inguruko gogoeta puntuez mintzatu zen, hiritarra subjeto izateko baldintzak eraikitzean, gaur egun indarrean dirauten legeen malgutasun eza gogoratuz.

4. Legearen aldaketa beharrez ere aritu zitzaigun José Francisco ETXEBARRIA GURIDI (EHUko Zuzenbide Prozesalaren Irakaslea) Zigor Arloko gatazketan bitartekaritzaren garrantziaz hitz egiterakoan. Ez zuen ekidin arlo berezi honek bitartekaritza emankor bat gauzatzeko duen zailtasuna aipatzerakoan, eta lege aldaketa horretan, besteak beste, puntu hauek jorratu zituen ezinbestekotzat: a) Fiskaltzaren papera berraztertzea; b) Legezketasunaren printzipio edo oinarriaren aitzakian hainbat hitzarmen hutsean gelditzen direla ikusita, oportunitate edo aukeraren printzipioa behar bezala arautzearen premia aritu zen.
5. Hala ere, zailtasunak zailtasun, Ixusko ORDEÑANA GEZURAGAK (EHUko Zuzenbide Fakultateko Irakasle denak)

Barakaldoko Zigor Bitartekotza Zerbitzuaren esperientziaren inguruan eginiko azterketaren berri eman zigan, eta baita erakutsi ere, gogo dagoenean, dauden tresnak baliagarri gerta daitezkeela bitartekaritza eta honen ondorio positiboan bidean.

6. Azken aipamena (ez balio gutxienekoa, alderantziz, praktikan erabiliena, seguruenik) Arantzazu PÉREZ MORIONESen, (UPV/EHU. E.U. Estudios Empresariales Sailekoa) *Arbitrajea justizia arruntaren alternatiba* izenez aurkeztutako lanari doakio. Azaldutakoaren muinaz zera azpimarra dezakegu: enpresen akordioak inpugnatzen diren kasutan, mota horretako gatazkak ebazteko *bitartekaritza modu (arbitraje)* horren baliogarritasunaren ikuspegia erakutsi zigan, batez ere, erreklamazio orotan sortzen den ziurtasun ezak, prozesu judizialek.

Eta bukatzeko, askorentzat errepikatu eta aspergarria gerta daitekeen, Hizkuntza, Euskara eta Justizia Administrazioaz bi mahai-inguru antolatu eta zuzendu genituen: Justizia eta Zuzenbidea ez direla Epaitegietara mugatzen jabeturik ezarri zitzaion izenburua: “bidezko prozesua” azpimarratu nahi baita Epaia ihardunetan burutzen den prozesuan egikaritzen direlako hainbat oinarrizko giza-eskubide ere. Gaiaren inguruan ikuspegi zabal eta europarra nahi zelako, Jordi Nieva eta José Palacio Irakasleen parte hartze zehatza: Batetik, 2002 urtean Espainiako Erresumak sinaturiko Europako Hizkuntza “Gutxituen” Itunaren ondorioz etorri behar lukeen aldaketa zer nolakoa izan behar zuen hausnartzea derrigorrezkoa dirudi, prozesu orotan konprometiturik diren oinarrizko eskubideak bermatu nahi izanez gero; bestetik, hizkuntza bat baino gehiago prozesu judizialean sartu eta erabiltzean problemak besterik ikusten ez dituenari, Palaciok argi adierazi zion Europako Auzitegietan arazoa gainditu eta ez dela problema bilakatzen, bidea errazteko borondatea baldin badago behintzat, eta erakutsi zigan egin daitezkeen korapiloak aska daitezkeela praktikan.

Ikuspegi zabal eta europarra eman nahiak, ezin bertakoaren azterketa baztertu, ezta gutxiago ere, eta Erkidegoko egoeraren aurrean bai izan genituela bi ikuspegi kontrajarriak ondoren osatu genuen mahai-inguruan: Kepa Sampedro Abokatuak legeen gabeziak eta marko juridiko-politikoaren eraginez agertzen zaizkigun oztopoak indartsu azpimarratu zizkigun bitartean, Epaitegietan euskararen erabilerako trebatzaile eta sustatzaile den Xabier Balerdi kementsu aritu zitzaigun zenbat baliabide diren gure eskura jakinaraziz; tresna (zentzu orokorrean hartuta hitz hau) horiek erabilgarri eta erabiltzeko eskura

ditugula “operadore juridiko” guztiok (egile eta eragile orok) adierazi eta nola erabil ditzakegun agertu zigan. Balerdiren azalpenak baikortasunez indartutako haize freskoari zabaldu zion leihoa.

Guzti honetatik, ezin bat aukeratu horrek besteak baztertzea badakar: Parte hartze eta lan guztiak beharrezkoak dira, eta oraindik beste hamaiketz osatu beharrekoak.